



**EBAZPENA, 2021EKO MAIATZAREN 4KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARRAK BETETZEKO LAN-POLTSAK OSATZEN DITUZTEN PERTSONEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA BAREMATUAK ARGITARATZEN DITUENA, LAN-POLTSAK EGUNERATU ONDOREN.**

---

Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2021eko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko langileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsak eguneratu ziren.

Agindu horrekin bat etorritz, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak ofizioz barematu ditu ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa-zerrendetan dauden pertsona guztien merezimenduak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko azaroaren 30eko Aginduaren 12. artikuluan ezarritako merezimenduen arabera (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen aldi baterako beharrak estaltzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko araudia onartu zen).

Alegazioak aurkezteko epea amaitu eta lan-poltsak langileek aurkeztutako merezimendu eta dokumentazio berriak aztertu ondoren, behin-behineko ebazpen barematua eman behar da, Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2021eko otsailaren 18ko Ebazpenaren 9. oinarrian ezartzen den bezala.

Horregatik guztiagatik,

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko langileen aldi baterako beharrak estaltzeko lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen behin-behineko zerrenda barematuak onartzea.

Zerrenda horiek eranskin gisa erantsi dira, eta [www.justizia.eus](http://www.justizia.eus) orrian eta Justiziako Langileen Atarian argitaratzeko agintzen da.

I. Eranskina.- Behin behineko zerrenda alfabetikoa

II. Eranskina.- Behin-behineko zerrenda puntuazioaren arabera

**Bigarrena.-** Behin-behineko zerrenda barematuen aurka erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, behar bezala dokumentatuta, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hamar egun balioduneko epean. Erreklamazioa aurkezteko, horretarako prestatutako inprimaki elektronikoa erabili beharko da, helbide honetan eskuragarri dagoena: [www.euskadi.eus/zerbitzuak/1091004](http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1091004).

**Hirugarrena.-** Argitaratu aurkestatutako alegazioen zerrenda, horien emaitzarekin, III. Eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maitzaren 4a

  
  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Jon Arturo Uriarte Unzalu

**Justizia Administrazioako zuzendaria**